

## **BI MILA ETA HAMABIKO URRIAREN 1EAN ETXARRI ARANAZKO BATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

2012ko urriaren 1ean, 20:00etan, Etxarri Aranazko Udalak ohiko Osoko Bilkurara deitu, eta lehenengo deian osatu da, arauzko moduan deitu ondotik. **JOSE IGNACIO BAKAIKOA ARISTORENA** alkatea izan du mahaiburu, eta ondoko zinegotziak agertu dira:

### **Agertu dira**

**AITOR KARASATORRE MUGURUZA jn.**  
**IÑIGO LAZKOZ LEKUONA jn.**  
**ENEKA MAIZ ULAYAR and**  
**ARACELI ERDOZIA ANSO and.**  
**MARIA ARANTZAZU ARTIEDA IGOA and.**  
**MIGUEL ANGEL GOÑI IXURKO jn.**  
**MAIDER GOÑI ERRAZKIN and**  
**KITZ MENDIOLA BARANDALLARA jn.**  
**JUAN ANTONIO EXTREMERA APESTEGIA jn.**

### **Ez dira agertu**

**EDURNE IGOA LIZARRAGA and.**

### **Idazkaria**

**Silvia Gonzalo Etxarri**

Hasi baino lehen, Aitor Karasatorrek hemendik aurrera Osoko Bilkurak grabatzeko eskatu du. Grabazioak transkripzioa erraztuko dio idazkariari. Grabazioak idazkariak gordeko ditu. Arazo legalik ez dagoenez, Alkateak baimena eman du.

Alkateak azaldu du, aurreko bileran eskatu zen bezala, gaurko bileran Maite Iparagirre, Mankomunitateko itzultzailea, zeregin horretan arituko dela.

## **1.- AURREKO AKTAK / ACTA ANTERIOR**

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, 2012ko irailaren 3an egindako Osoko Bilkuren akta aztertu du (8. puntuan azkeneko esaldia aipatu), eta, jarraian, onartu da.

## **2-OSOKO BILKURAKO MAIZTASUNA ALDATZEA / MODIFICACIÓN PERIODICIDAD DE SESIONES PLENARIAS.**

Ikusirik azken hilabete hauetan Osoko Bilkurako gai asko ez dagoela eta kontuan harturik idazkariak hemendik aurrera daukan egoera, Alkateak proposatu du Osoko Bilkuren

maiztasuna aldatzea eta, 6/1990 Foru Legeak 73. eta 77. artikuluetan dioen bezala, hiru hilean behin egitea. Behar denean, ez ohiko bilkurak deituko dira, eta saiakera egingo da astelehenetan eta 20:00etan egiteko.

Ohikoak, hiruhilekoaren lehendabiziko astelehenean izango dira, arratsaldeko 20:00tan.

Hitz egin ondoren, bozkatu da eta Udalbatzak aho batez onartu du aldaketa.

### **3.-GALDE ESKEAK/ RUEGOS Y PREGUNTAS**

--Juan Antonio Extremerak batzordeetan parte hartu nahi duela dio. Idazkariak eta alkateak azaldu dute ez dagoela komisio "ofizialik". Berriz, bizilagunek parte hartzen duten batzorde irekiak badaude. Deiak bidaliko zaizkio. Extremera jaunak itzultzaileko izatea eskatzen du. Batzorde ofizialik ez izanda, aztertu beharko da eskubide hori duenik.

--PPko zinegotziak, etxez-etxeko zabor bilketari buruz galdetu du. Aitor Karasatorrek nola eta noiz jarriko den martxan azaldu dio.

Eta aztergaien artean beste gairik ez dagoenez, 20:22an presidenteak, Osoko Bilkura amaitutzat emanik, idazkariarekin batera akta sinatu du, eta idazkariak horren fede eman du.